

Euskararen bideak

Martin Ugalde

Gizakiak kultura zer den galdetzea, arrainak ura zer den galdezka jartzea bezalako zerbait izango litzateke. Arrainak bere buruari galdetzen dion ala ez, ez dakigu; gizakiaren ahalmenak mugatuak baitira.

Eta gizakiaz ari gara orain: zer da kultura? Laburpen gisa, egin dezagun alderantzizko itauna: Zer da kultura ez dena? Kultura ez dena. Natura da. Natura da gizona jaiotzen denean egina dagoela aurkitzen duen guztia: mendiak, ibaiak, itsasoa, eguzkia, animaliak eta gizakiak ere bai, eta laster bere buruaz ere ohartzen da. Eta don Jose Migel Barandiaranen hitzetan esateko: "*Gizakia ez dago bere baitan*".

Natura, "Jainkoak eginak" direla esan ohi dena da.

Beraz, kultura, gizakiak natura honekin egiten duen guztia da: ibaiak gurutzatzeko zubiak, itsasoratzeko erabiltzen ditugun untziak, lur gaineko auto eta trenbideak, hegan ibiltzeko hegazkinak; eta kultura da, halaber, bere kasa sortzen dituen gobernuak eta bereizgarri nagusi duen bere artean ulerrarazteko gizonak sortu duen hizkuntza. Zeren eta hau ez da sudurra, begiak edo larruaren kolorea bezala berez natura bideetik jasotzen dugun heredentzia; hala balitz, ez guke gaur dugun hizkuntza arazorik izango!

Mintzaira gertakari soziala da!

Belaunaldi batzuetan gal daitekeena!

Gizakia, animalia bezala, bere artean bir-

sortzen denez, familia bidez zabaltzen da, eta familiaz familia herriak sortzen dira: mendi hegaletan, ibai eta itsasertzetan, beharrezko duen babesaren eta janariaren bila. Aldi batean oinez eta oso nekez. Eta hizkuntza sortzen hasi zen lekuan, ingurugiroan, hotz-beroak direla eta, zuhaitz, landare eta animaliekin dituen konplexitateak tarteko joan da gizakia hizkuntza ehundaka, milaka urteko esperientzia bidez bere mundura egokitzen; artzaintzan beste herrietako jendearekin topo egin, batzuetan bakean eta besteetan borrokan doaz aurrera bizirik iriteten direnak!, hizkuntzak hitzez aberasten, beste batzuk ahantzi eta galtzen. Zuhaitzak hostoak bezala. Gero joan dira herriak batak bestea menderatzen, hizkuntzak zanpatzen, dependentziak sortzen, eta gure herrian orain bi mila urte Mediterraneo itsasotik igo ziren erromatarrekin izan genituen harremanak, eta beste eragin nagusietako bat aipatzeko, orain mila urte Afrikatik igo ziren arabiarrekin.

Euskararen agertzen dira hemen utzi zituzten aztarnak.

Baina gure inguruko herrietako mintzairak ezabatu bazituzten ere, ez zuten gure mintzaira zapaldu eta desagertarazi ahal izan.

Beste erasoak, gure herriko administrazio baturik izan ezean Erdi Aroan jasan behar izan genuen, batetik Gaztelaren administrazioaren eraginez Bizkaia-Gipuzkoa-Araban, eta Gazte-

lak tranpaz Nafarroa menderatu zuela kausa, eta Iparraldeak Ingalterra eta Frantziako erregeen eraginez sortu zituztenak.

Eta hau, halaber, garai hartako usarioa zen bezala, Nafarroako erregeek semerik izan ez eta bere alabak atzerriko printzeekin ezkontzen zituztelako.

Egoera honetan jaso genituen kalterik handienak. Halere, ordea, hizkuntza administratibotik eta eskola eta unibertsitatetik kanpo utzi

“Herri honetan indarkeria zaharra da, eta ez gurea!”

bagintuzten ere, ez zuten gure mintzairarekin akabatzerik izan. Komunikabide eskasak oraindik, familia barruan eta herrietan bizi zen euskara naturalki, euskalkiak sortu eta erabiliz. Eta Iparraldean XVIII. mendeko iraultza dela eta Hegoaldean XIX.eko gerla karlistaren ondoren, 1839an, gure askatasuna legez kriminalki lehen aldiz suntsitu ziguten arren, garaian oraindik euskara zen nagusi: Iparralde osoan, eta Hegoaldean Iruñea eta Gasteizko ingurua euskalduna zen! Ikus *“Hizkuntza borroka Euskal Herrian”* (Euskaltzaindia, 1979). Hemendik pasatzen da garai honetako hizkuntzen lerro nagusia, bi hitzetan esateko, eta Euskal Herriaren egiazko zapalketa, genozidioa.

Ez da orain mila urte!!

EMIGRANTEAK ETA ETORKINAK

Denok dakigu, bakoitzak bere hizkuntzaz pentsatzen dugun neurrian, hizkuntza dela herri baten muina eta memoria; gu geu garela, ez beste inor; eta gurea lur honen gainean orain 6.000 bat urte sortua izan zena bizi da, eta hau da euskaldunok diogun atxikimenduaren proba garbiena.

Honek ez du esan nahi, noski, erraza izan denik, eta ezta dagoeneko hizkuntza salbatu dugunik ere; hara hemen herri honen ezaugarri diren seinale batzuk:

1. Mugatua da lur aldetik, lur hau ez da aberatsa, eta aspaldidanik izan da emigranteak

eman dituen, itsasoz joan dira mundu guztian zehar ondasun bila, eta mundu honetako kontinente guztien historia euskal gizonaren ekintzaz josia dago.

2. Bestalde, ingurukoak ez dira izan, batez ere penintsulako hegoaldean, aberatsagoak, eta Bizkaian izan dugun burdin meategiak esplotatzeko kanpotarrak olatuka heldu ziren, eta batzuetan ekarrarazi genituen, eta hauekin batera, noski, sartu zen berek zekarten kultura, bere hizkuntza, proletargoaren lehen fenomeno eta laster sindikalgintza. Egoera normal batean, berrietasun hau joango zen gure herriaren kulturara egokitzen, beste herri askotan gertatu den eta gertatzen ari den modu berean, baina gurean gure hizkuntza eta herritasunaren kultura galtzea etorri zen, erasaoldiak gu zanpatzen gintuen administrazioaren babesean etorri zitzaigulako, eta fenomeno konplexo eta kementsu honen inguruan sortu zuen industrializazioak behar zuen langileria gehituz klase borrokaren fenomeno.

Honela, gaitz handi honen aurrean, sortu zen bereziki Sabin Arana Goirik eraginda gure herriaren estuasuna eta abertzaletasun berri, moderno eta erradikal baten zentzua. Gogoan dut, eta zintan grabatua, Lezo Urreiztieta santurtziarrak esaten zidana: bertoko fabriketan sartzeko abalak Goardia Zibilak ematen zituela, eta nahiko zela deiturak euskal kutsua izatea beharrezko portaera oneko ziurtagiria herriko semeari ukatzeko. (Lezo Urreiztieta 1907- 1982, M.U., Elkar, Donostia)

Hau zen ezkerreko erriberan eta eskualde honetan XX. mendearen hasieraz esana. Dagoeneko eginak zituzten, euskal politikari eta gero honez gain bakoitzaren euskal politikarien gizon “peligrosoen” zerrendak.

Geroztik, gutako bakoitzak, bekatu orijinala bezala jaso duguna. Herri honetan indarkeria zaharra da, eta ez gurea!

Egia esan, Hegoaldeko lurrez ari garela, Bizkaian batez ere, hegoaldeko beste bi herrialdeetan baino askoz ere zailagoa zen abertzale izatea; meritu handia dute garai hartan, eta gero ere!, euskal lanetan Bizkaiko eskualde honetan, Nafarroa eta Arabako hegoaldean, eta baita Iparraldeko lekuetan, euskal kulturaren eta politikan ari izan direnak.

Bestalde, komunikabideak hasiak ziren garrantzia gero eta handiagoa hartzen, eskola ere bai, administrazioaren arabera eraturia dena!

Hala, aipa berri ditugun etorkin berri hauek, gure herriak behar eta merezi zuen integratzaile izan ohi diren administrazio eta kulturbidetik sartu izan balira, arrotza euskaldundu egingo zen; baina beste alderdi honetatik, etorkina zen gurean berea ezartzen zuena. Eta ez etorkinak asmo honekin zetozelako, baizik eta Espainiako



"Euskaldunak atzerrian aurkitu izan dugun onarpen hunkigarri bera zor diegu hemen".

eta Frantziako administrazioak eta bere armadak eta poliziak, politika honen bidetik sartzen zituztelako.

Noren zerbitzuan ari dira 1892ko belaunaldi literarioaren euskaldunak?

Non koloniak, noerentzat negarrak, noerentzat abantailak!? Galdetu Sabin Aranari. Gaur bertan zer ari da gertatzen PSOEko politikarekin boto bila ari dela Euskal Herrian! Eetik ari dira PSOE barruan euskal sentimendu hau kamuzteko asmotan, baina ez dugu sinisten PSOEn politikako joera hori inoiz aldaraziko dietenik, eta, zoritxarrez, EEkoek berak pasako dira Madrileko bidezidorretik ongi ordainduta, politika nazionalista espainola egitera: etorkina herri honetan abertzaletasunaren aurka joatea.

Hau, nahiago nuke, euskaldun abertzale bezala, alderantziz gertatuko balitz, PSOEko EEkoek euskalduntzeko bidea zabalduko balute.

Euskaldunak lan egitera joaten ziren herrietan gertatzen zen eta den bezala.

3. Egoera hau Euskal Herriko hegoaldean izan dugun Estatuto Politiko baten babesean sortu dira defenza txiki batzuk, eta hauei esker ari gara lortzen azken hamabost urteotan oreka txiki bat. Oso txiki-zurkaitz eta itsu bada ere. Eta aurrera lortzen ari garen bidetik ikusi behar dugu etorkina eta honen ondorena euskaldunaz integratzeko bidea, eta egoera honetan jakin

behar dugu ematen etorkinari gure babes osoa, jakin behar dugu hauei ulerrarazten hemengo direla, gure herriko zati direla, egiatan nahi badute; batez ere Europa osatzen hasi garen honetan.

Guk ez dugu diskriminazio bidez baztertzen zanpatzeko makina espainolistara igotzen ez dena. Hala nahita gureganatzen badira. Badakigu gure herrian funtzionatzen duten partidu espainolistak desoreka zaharrari esker ari direla politika antidemokratikoaren zerbitzu hau egiten, baina guk erakutsi behar dugu argi geuk ere badakigula gure herriaren zerbitzuan alderantzizko lanaz zabaltasunean etorkina hartzen.

Euskaldunak atzerrian aurkitu izan dugun onarpen hunkigarri bera zor diegu gurean.

Eta hemen aipatu nahi dut, amaitzeko, hizkuntzak bere lana egiteko behar duen komunikatibitate bat, eta ez alferrena: egunkaria. Gaur sortu berria eta oraindik bizirik irauten duen Euskaldunen Egunkaria. Hau da euskarak duen erreminta eraginkorrenetako bat. Batez ere, hizkuntza gehien finkatzen duena. Berandu heldu zaigu, eta ez behar dugun adinakoa, baina hutsune nabarmena betetzen hasi garen honetan laguntza guztien beharretan dagoena, eta hainbesteko zitalkeriaz euskal agintari batzuen zailtasun ofiziala aurkitzen ari dena.

Irkurleak badaki honetaz nik adina.